

BERRI PAPER

17. ZK.

MARIENEA BASAURI
2026 · 2027 IKASTURTEA

MARIENEA

basauriko Emakumeen



MARIENEA

basauriko Emakumeen etxea
casa de las Mujeres de basauri


BASAURI

EUSKARA

HARREMANETARAKO ETA MATRIKULAK

MARIENEA BASAURIKO EMAKUMEEN ETXEA

Telefono-zenbakia 946 124 100

E-mail marienea@basauri.eus

Ordutegia 9:30-14:30 eta 16:00-20:30
astelehenetik ostiralera
(ostiraletan goizez baino ez)

Helbidea Kareaga Goikoa 54
48970 Basauri (Bizkaia)

Instagram @marieneabasauri

Webgunea berdintasuna.basauri.eus

DATA ZEHATZETARA BIDERATUTAKO EGITARAUA:

 A25 | Indarkeria Matxistaren
Aurkako Eguna

 M8 | Emakumeen Nazioarteko
Eguna

 A26 | M17 | E28
LGTBIQ+ eskubideak
aldarrikatzeko egunak

Argitaratzailea:
Marienea Basauriko Emakumeen Etxea

Ilustrazioak, diseinua eta maketazioa:
Habemus Estudio

Inprimaketa:
Printheus

EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA

- Jardueretan parte hartzeko, aurretiaz izena eman, tokia dagoen egiaztatu, eta ordainketa egin behar duzue.
- Izena Marienean bertan eman ahal izango duzue; telefonoz deitu, bidali mezu elektronikoa, edo izena eman webgunean.
- Basaurin bizi direnek lehentasuna izango dute.
- Ikastaroetako plaza baieztatzen denean, matrikula ordaindu beharko duzue.
- % 50eko tarifa murriztua, langabezia eta LANBIDEn apuntatuak daudenentzat, DSBEa jasotzen dutenentzat, pentsiodunenentzat eta 18-24 urte arteko ikasleentzat.
- Doan, 18 urtetik beherakoentzat.
- Haurtzaindegi-zerbitzua aukeran, Basaurin bizi direnentzat (aurretiaz eskatuta).
- Ikastaro elebidunak: edukiak euskaraz eta gaztelaniaz azalduko dira, eta parte-hartzaileek nahi duten hizkuntzan mintzatzeko aukera izango dute.
- Jabekuntza Eskola Marienea osatzen dugun guztiona da. Horregatik, denon ardura da parte hartzen dugun ikastaro eta jarduerak zaintzea. Beraz, GOGOAN IZAN:
 - zure konpromisoa behar dugu: ikastaro batean izena ematen baduzu, etorri
 - ezin baduzu etorri, esaiguzu, eta,
 - horrela, beste norbaitek bete ahal izango du zure plaza.

BAZATOZ?

DENA ALDATZERA GOAZ!

- **Ordutegia:** 18:30 – 20:30
- **Matrikula:** doan **ELEBIDUNA**

FAKE NEWS: EGIA – OSTEAREN EGIA

• **Hizlaria:** Leire Palacios **EUSKARAZ**

• **Data:** azaroak 19, osteguna

Informazio-uholdeari eta post-egiari buruzko gogoetatik abiatuko gara, gezur digitala botere-egiturak indartzeko eta ertzen aurkako jarrerak hauspotzeko tresna baita. Komunitatearen polarizazioaren eta kontakizun ofizialen aurrean, gezur digitalak detektatzeko gaitasunak, begirada kritiko kolektiboak, ahots periferikoek eta sareak modu enpatiko eta arduratsuan erabiltzeak duten garrantzia nabarmenduko dugu.

BIKTIMA FIDAGARRIA EDO METODO FIDAGARRIA

• **Hizlaria:** Laia Serra **GAZTELANIAZ**

• **Data:** otsailak 4, osteguna

Indarkeriak fenomeno konplexuak dira, ikuspegi sinplistetatik aldentzea eta feminismotik eta modu interseksionalean heltzea eskatzen dutenak. Hala ere, beren horretan diraute emakumeei «biktima idealaren» eredura egokitzea edo indarkeriaren aurrean nola jokatu zuten justifikatzea eskatzen dieten estereotipo eta iritziek. Gogoeta egingo dugu alborapen horiei buruz, arau sozialen eraginari buruz eta komunitateak kalteen aitortzan eta bizirauteko estrategietan duen rolari buruz.

ULTRAESKUINA, GENEROA ETA SEN ONAREN ALDEKO BORROKA

- **Hizlaria:** Nuria Alabao **GAZTELANIAZ**
- **Data:** otsailak 25, osteguna

Zergatik erabiltzen dute eskuin muturrekoek hain modu errepikakor eta obsesiboan generoa? Zergatik da mobilizazio-tresna bat eta zer mundu-mota eta gizarte-idea dakar? Eskuinak esparru horretan egiten dituen diskurtso nagusietako batzuk ezagutuko ditugu, baita generoa eta arrazakeria nola artikulatzen diren ere.

Feminismotik abiatutako estrategien inguruan arituko gara, eszenatoki horri aurre egiteko.



IDAZLE AFRIKARREN LITERATURA LITERATURA-IKASTAROA

• **Formatzailea:** Ainhoa Aldazabal

• **Data:** asteazkenetan, irailak 30,
urriak 28, abenduak 3 (osteguna),
urtarrilak 28 (osteguna), otsailak
24, apirilak 28, maiatzak 26
eta ekainak 14 (astelehena).

• **Ordutegia:** 18:00 - 20:00

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Afrika kontinente aberatsa da ahazko literaturan.
Ugaria eta askotarikoa da hango literatura idatzia
ere, nahiz eta, zoritxarrez, gutxi itzulita dagoen.

Hainbat herrialde, autore eta liburu ezagutzeko
bidaia proposatzen dugu. Emakumeen ahotsak
luma original eta indartsuetan zehar gidatuko
gaitu, topiko eta klixeeak alde batera utzita.



TRAZU SENDOKO EMAKUMEAK

• **Formatzailea:** Ana Rosa Arroyo

• **Datak:** ostegunetan,
urriaren 1etik
abenduaren 17ra

• **Ordutegia:** 10:00-13:00

• **Matrikula:** 20 € **GAZTELANIAZ**

Elkarrekin margotuz, ahaldundu egiten gara, gure autoestimua sendotzen dugu, eta emakumeok artearen sorkuntzan dugun funtsezko zereginarri balioa ematen diogu.

Tailer honen helburua da hitzetatik ekintzetara igarotzea eta gure talentua bultzatzea, barruan daramatzagun artistak elikatu eta haiei ahotsa emango dieten prozesu sortzaile kontziente eta kolektiboen bidez.

Urtarrilean eta otsailean zehar, tailerraren emaitzak ikusgai egongo dira, Marienean.



ZURE PELBIS-ZORUA EZAGUTZEN



• **Formatzaileak:** Vanesa Porret,
Isabel Relancio eta
Saioa Hernández

• **Datak:** ostegunetan,
urriaren 22tik
abenduaren 17ra

• **Ordutegia:** 17:00 - 19:00

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Historian zehar, gure zoru pelbikoa ikusezin egon da. Tailer honek gure burua berraurkitzea proposatzen du, entzutetik, plazeretik, ezagutzatik eta zaintzatik abiatuta. Helburua ez da gorputzak zuzentzea, ahalduntze eta ikaskuntza kolektiboko prozesuetan laguntzea baizik.

*Ez da jarduera terapeutikoa, ezta lesioak tratatzekoa ere.

DANTZA PELBIKOA



• **Formatzailea:** Itziar Arroyo Puente,
Emakumeak Aniztasunean
Elkartearekin elkarlanean

• **Datak:** ostegunetan,
urtarrilaren 21etik
martxoaren 18ra

• **Ordutegia:** 18:00 – 19:30

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Dantza pelbikoa bizitzari dantza egitea da: emakumeen artean dantza egitea, zirkuluan dantza egitea, mugarik gabe dantza egitea. Gorputzak elkarrekin libreki eta juzgurik gabe mintzatzeko gunea sortuko dugu, non gure pelbisa astindu, uhindu eta dardararazi egingo dugun.

ZINEMAREN BESTE HISTORIA BAT...

• **Formatzailea:** Helena Pérez Barrio

• **Data:** astelehenetan,
urriaren 26tik
azaroaren 16ra

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00

• **Matrikula:** 5€

EUSKARAZ

Zinemak forma eman dio munduari begiratzeko dugun moduari, baina gure mundu hori posible egin duten emakume asko kontakizun ofizialek kanpo geratu dira. Tailer honek zinemaren historian zeharreko ibilbide feminista bat proposatzen du, ikusezin bihurtutako zuzendariak, gidoilariak eta sortzaileak aurkitzeko, kontsumitzen ditugun imajinarioei buruz elkarrekin hausnartzeko, eta topaketatik, memoriatik eta ahalduz kolektibotik erreferente berriak eraikitzeko. Animatuko zara zinemari beste begi batzuekin begiratzera?

AUTOZAINZA, AUTOESTIMU ETA AHALDUNTZE SEXUALERAKO TAILERRA

Adimen-desgaitasuna duten emakumeei
autoezagutza-prozesuan laguntzeko ikastaroa.

- **Formatzaileak:** Saioa Hernandez,
Gorabiderekin
elkarlanean
- **Datak:** ostegunetan,
urriak 22, azaroak 19
eta abenduak 3
- **Ordutegia:** 18:00 – 19:30
- **Matrikula:** doan **GAZTELANIAZ**



Nola erlazionatzen gara gure buruarekin? Eta besteekin?
Topaketa hauetan, geure barnera begiratu, eta
geure buruarekin hitz egingo dugu, adeitasunez eta
maitasunez; geure burua zaintzen ikasiko dugu, gure
berezitasunak aintzat hartuta. Elkartzen garenean eta
gure esperientziak partekatzen ditugunean sortzen den
ikaskuntza kolektiboa da tailerraren garapenaren gakoa.



GEURE BURUA BERRIDAZTEN IDAZKETA TAILERRA

- **Antolatzailea:** Estereotipak Elkarte



- **Formatzailea:** Haizea Murguia

- **Datak:** asteazkenetan,
azaroaren 4tik
abenduaren 9ra

- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00 **GAZTELANIAZ**

Autokontzientzia, sormena eta jabekuntza landuko ditugu, idazketa sortzailetik, ikasleek beren testuak sor ditzaten leku sendatzaile eta terapeutiko batetik, askatasun-espazio batetik, epaituak izan gabe. Hitza eta egileak izango dira protagonistak, eta teknika autobiografikoa konbinatuko dugu askotariko baliabide estilistikoekin.

Abenduaren 9an, tailerraren lanak aurkeztuko ditugu.

Izen-emateak estereotipak@gmail.com helbidean.

BIZI ZURE GORPUTZA BEGIRADA FEMINISTA BATETIK

- **Formatzailea:** Sandra Arroyo Cruz

- **Datak:** astelehenetan,
urtarrilaren 11tik
martxoaren 15era

- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00

- **Matrikula:** 20 € **GAZTELANIAZ**

Emakumeen gorputzaren gainean patriarkatuaren logikak eta indarkeria matxistak proiektatzen dira. Horrek munduan bizitzeko eta geure buruarekin erlazionatzeko dugun modua baldintzatzen du.

Tailer honek begirada feminista batetik gorputzarekin birkonektatzeko bizipen-prozesua proposatzen du, mugimendua, arnasketa, ahotsa, musika eta sormena erabiliz, sororitate eta elkar zaintzarako espazio batean.

* Ez da behar alde zure esperientziarik, arropa eroso eta prozesuaz gozatzeko gogoia baino ez.

ARRAZAKERIAREN AURKAKO JENDARTE-MUGIMENDUAK ERAIKITZEN

Basauriko Asanblada
Feministarekin elkarlanean



- **Formatzaileak:** Flora Pozzobon eta Sara Álvarez
- **Datak:** urtarrilak 29 eta 30, ostirala eta larunbata
- **Ordutegia:** 17:30-20:30 eta 10:00-15:00
- **Matrikula:** 5€ **GAZTELANIAZ**

Espazio bat sortuko dugu arrazakeriari buruz, bere eraginei buruz eta mugimendu sozialetan eta gure praktika politiko eta aktibistetan dituen adierazpen desberdinei buruz hausnartzeko. Begirada feminista eta kritiko batetik abiatuta, logika arrazistek gure subjektibotasunak, erakundeak eta politika egiteko moduak nola zeharkatzen dituzten identifikatuko dugu, gure eguneroko zereginean arrazakeriaren aurkako proposamen eta praktikak kolektiboki eraikitzeko.

EMAKUMEOK* EROAGO GAUDE? OSASUN MENTALARI ETA GENEROARI BURUZKO TAILERRA

- **Formatzaileak:** Estereotipak Elkarte
- **Datak:** asteazkenetan, otsailaren 3tik 24ra
- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00



- **Matrikula:** 5 € **GAZTELANIAZ**

Zer da eromena? Zer dira genero-estereotipoak? Zer harreman dago estereotipo horien eta osasun mentalaren artean?

Tailer honetan, ezinegon psikikoei buruzko aurreiritzien gain hausnartzeko dugu. Tailer teorikoa izango da, parte-hartzaileen ahotsak kontuan hartuz ezagutza eraikitzea xede izango duena.

***Ez da terapia talde-bat, hausnarketa egiteko tailerra baizik.**



BRIKOLEA

ITURGINTZA ETA ELEKTRIZITATEA

- **Formatzailea:** Ana Oceja Uribe
- **Data:** astearteetan,
apirilaren 6tik
maiatzaren 18ra
- **Ordutegia:** 10:00 – 12:00
- **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Tailer hau autonomia lortzeko ikasketa-gunea da, non iturgintzako eta elektrizitateko konponketa batzuk egingo ditugun. Arazoak identifikatzen eta horiei irtenbidea ematen ikasiko dugu, zenbait tresna eta materialekin. Gainera, eguneroko matxurak konpontzeko «ikasitako» beldurrari aurre egin, eta gure independentzia eta autoestimua handituko ditugu.



AUTOMEKANIKA TAILERRA

- **Formatzailea:** Olatz Eguiguren Aizpuru
- **Data:** apirilak 10, larunbata
- **Ordutegia:** 10:00 - 14:00
- **Matrikula:** 5 € **ELEBIDUNA**

Ibilgailuaren motorrak bere lana ondo egiteko behar dituen sistemak ezagutuko ditugu.

Helburua da sistema horiek behar dituzten zaintzak eta mantentze-lanak modu teorikoan, eta, batez ere, praktikoan, ezagutzea.

Bide batez, geure buruaganako konfiantza, autoezagutza eta autonomia sustatuko ditugu.



AUTODEFENTSA FEMINISTA NESKA GAZTEENTZAT

Neskatoentzat (10-12 urte)

• **Formatzailea:** Ageda Blasco Egia

• **Datak:** ostegunetan,
apirilaren 15etik
maiatzaren 6ra

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00

• **Matrikula:** doan **EUSKARAZ**

Tailer honetan, ikasiko dugu indarkeria identifikatzen, gorputzaren seinaleak eta mugak entzuten, ahotsa erabiltzen, harreman osasuntsuak eraikitzen eta zaintza kolektiboa sustatzen. Eta, gainera, gozatu egingo dugu, geure buruarekin topo egin dugulako!

... KALEAK GUREAK ERE BADIRELAKO

EMAKUMEEN HERRI-BAZKARIA, BASAURIKO JAIETAN

- **Data:** urriak 14, asteazkena

Ezin dugu huts egin Basauriko jaietan urtero egiten den emakumeen bazkarian. Dantzatu, gozatu, eta geure espazioa okupatuko dugu. Kaleak hartuko ditugu, jaietan gure presentzia ikusarazteko.

* Bazkarirako tiketak laster egongo dira eskuragarri, Marienean.

GABONETAKO BAZKARIA, FAMILIA NUKLEARRAREN EREDUAZ HARAGO



- **Antolatzailea:** Marieneako Bolleren Taldea

- **Data:** abenduak 12, larunbata

Familia heteronormatibotik eta Gabonetako iruditeria tradizioetatik haragoko bizimoduak aldarrikatzeko topaketa.

Denbora partekatzeko, komunitatea eraikitzeko eta disidentziatik gozatzeko espazio bat.

Kolektiboki hausnartuko dugu. eta bazkari autogestionatua, musika akustiko parte-hartzailea eta herrian zeharreko poteoa egingo dugu.



EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEORA TXANGOA -GALLARTA

• **Data:** apirilean

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoak XIX. mendearen erdialdetik XX. mendeko 30eko hamarkadara arteko Bizkaiko emakume langileen errealitatea hobeto ezagutzera gonbidatuko gaitu. Dolores Ibarruri Pasionariari eskainitako areto berezia ere badute. Aurten, Museoa ezagutzeko irteera antolatuko dugu.

VI. EMAKUMEON HERRI KORRIKALDIA

Marieneako Korrikalariak taldeak urteroko lasterketa antolatzen du. Ikasturte osoan zehar entrenatu ostean, elkarrekin korrika eta ibili, eta Basauriko kaleak betetzeko guna iritsi da.

Animatuko zara?

MARIENEAREN XV. URTEURRENA

2027 honetan, Marieneak 15 urte betetzeko ditu! Maiatzean zehar, gure ibilbidean zeharreko urteurren hori ospatu, eta ikasturteari agur esateko aprobetxatuko dugu. Laster izango da prest hilabete berezi horretarako programazioa! Ez galdu aukera! Animatu eta parte hartu!



JABEKUNTZA ESKOLAKO TALDEAK

Tailerrak eta ikastaroak bukatzen direnean, emakume askok erabakitzen dute euren kabuz batzen jarraitzea. Marieneak talde horiek babesten ditu eta erabiltzaileen eskura jartzen ditu bertako baliabideak. Ezagutu taldeak!

01 ELKARREKIN OINEZ

Elkarrekin oinez ibili elkar ezagutzeko, lagunduta joateko, sareak ehuntzeko, elkarri laguntzeko... sasoian egoteko. Asteazkenero irteten gara Marieneatik 10:00etan.

02 HEMEN GAUDE

Guretzat garrantzitsuak diren gauzez hitz egiteko eta zenbait jarduera antolatzeke elkartzen gara. Elkar zaintzeko emakumeen sarea egin nahi dugu, lagunduak sentitzeko, taldean parte hartzeko eta jakintzak trukatzeko.

03 MARIENEAKO KORRIKALARIAK

Marieneak Korrikalariak

Elkarrekin korrika egiten dugu, eta horrek indartsu egiten gaitu. Kirola kaleak hartzeko beste modu bat dela uste dugu, eta, gainera, ikusgarri egiten gaitu. Ez dugu korrika egiten ihes egiteko, erronka berriei aurre egiteko baizik. Ez gara eliteko kirolariak. Horregatik, zuk ere baduzu lekua gure entrenamenduetan.

Animatu zaitetz!

04 TOPAKETA SORTZAILEAK

Zure alde artistikoa esploratu nahi duzu? Arte plastikoei ekiten diegu, hilean bi asteartetan, 18:00etatik 20:00etara. Atera barnean daramazun artista!



05 EMAKUME FEMINISTA ZAHARRAK

Zatoz Basauriko emakume zaharren egoeraz feminisмотik hausnartzera. Baditugu proposamenak Basaurin zaintza feministarako eskubide kolektiboa gauzatzeko. Hamabostero biltzen gara, asteazken goizetan, Marienean.

06 BASFEMBAND



Danborrak jotzen ditugu elkarrekin, eta erritmoa jartzen diegu feministen aldarrikapenei, espazio publikoan. Astero elkartzeko gara, eta beste banda batzuekin sarean ere lan egiten dugu.

07 ESTEREOTIPAK SALUD MENTAL FEMINISTA



ESTEREOTIPAK

Osasun mentaleko elkarte feminista bat gara. Osasun mentalari buruz hausnartzeko, estereotipoak hausteko eta modu kolektiboan ahalduztzeko biltzen gara, gizarte-aldaketaren alde. Parte hartzeko eta informazio gehiagorako, jarri haremanetan gurekin @esterotipak-en.

Aurten, elkartearen III. Topaketak egingo ditugu, urriaren 24an.

08 MARIENEA KO BOLLERA TALDEA



Marienean sortutako bollera feministon taldea gara. Gogotsu gaude barrura zein kanpora begira lan egiteko, betiere feminista eta bollera izatea ardatz hartuta. Gurekin hausnartzera etorri nahi baduzu, animatu! Marienean edo @marieneakobollerentaldea-n aurkituko gaituzu! Inoiz ez da berandu bollera izateko!



09 MARIENEA KO EUSKARA BATZORDEA

Marieneako Euskara Batzordea duela 10 urte sortutako lantaldea gara. Euskara eta feminismoa uztartzea dugu helburu. Basauri euskaldun eta feminista baten alde lan egiten dugu, euskaldunak eta feministak garelako. Ikasturtean zehar gure taldeak bultzatzen dituen ekimenetara eta gurekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu! Aurten zerbait berezia egiteko asmoa dugu! Bazatozte?

HERRITAR GUZTIENTZAKO JARDUERAK

* Jarduera guztiak doakoak dira

«ELLAS EN LA CIUDAD» DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA ETA SOLASALDIA

Emakume Feminista Zaharren
Taldearekin elkarlanean

- | | | |
|---------------------|--------------------------|--------------------|
| • Data: | urriak 21, asteazkena | |
| • Ordutegia: | 18:00 - 20:00 | |
| • Lekua: | IBAIGANE
Kultur Etxea | GAZTELANIAZ |



Bizipenak partekatzea eta jakintzak kolektibizatzea izan da emakume askorentzat ikasteko modu nagusia. Gaur egun, emakume asko esparru akademikoan sartu dira, ikerketan, eta batzuek ikuspegi feminista ematen diete beren lanei. Ikasturte honetan, hiru ikerketatan ikasitakoa partekatuko dugu.

KARTOGRAFIA TRIANGELUARRAK: HEZKUNTZA-LIDERGOA FEMINISMOAREN, HEZKIDETZAREN ETA DIGITALIZAZIOAREN ARTEAN. EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA PUBLIKOAN LIDER DIREN EMAKUMEEN ESPERIENTZIAK

- **Egilea:** Virginia Pozo González
- **Data:** urriak 22, osteguna **EUSKARAZ**

BESTE BARRE BATZUK POSIBLE DIRA. FEMINISMOAREN SERIOTASUN JASANEZINAREN MITOA DESAKTIBATUZ

*ORDUTEGIA:
19:30 - 21:30

- **Egileak:** Iraide Álvarez Muguruza eta Sabela Fraga Costa
- **Data:** urtarrilak 22, ostirala **GAZTELANIAZ**

NAFAR HEGOALDEKO BOLLERA GAZTE EUSKALDUNEN BIZIPENEN HURBILPEN ETNOGRAFIKO BAT

- **Egilea:** Amaia Elkano del Río
- **Data:** apirilak 15, osteguna **EUSKARAZ**

Esparru akademikoan aritzen zara?
Ikuspegi feministatik abiatu duzu zure ikerketa?

Egindako lana eta ikasitakoa aurkezteko toki bat bilatzen duzu?

Zatoz gurekin guztiokin partekatzera!
Goazen jakintzak kolektibizatzerara!

ZINEMAKUMEAK GARA!

- **Data:** azaroak 4, asteazkena
- **Ordua:** 19:00 **GAZTELANIAZ**
- **Lekua:** Social Antzokia

Aurten ere, Zinemakumeak Gara, Basaurin! Social Antzokiarekin lankidetzan, emakumeek zuzendutako film bat proiektatuko da.



EMAKUMEAK ETA MUSIKAREN INDUSTRIA

- **Antolatzailea:** Rockein, MAZ Basauri
- **Dinamizatzailea:** Myriam Miranda
- **Hizlariak:** Lola Guerrikaetxebarria
Afrika Bibang
- **Data:** azaroak 12, osteguna
- **Ordutegia:** 18:30-20:30 **EUSKARAZ**

Musikaren industrian dabilzan emakumeen esperientziak partekatuko ditugu, gizonen presentzia nagusi den sektore horretan eta eszenatokietan emakumeen presentzia sustatzeko topaketa batean.

PODCAST ZIKLOA

ORDUTEGIA: 18:00 - 20:00

Eztabaidatzea, aztertzea, sakontzea, gogoetatzea, eztabaida feministak gizarteratzea... Iritsi dira podcastak Marieneara ere, eta, ikasturte honetan, hiru egingo ditugu:

HARREMANAK ETA ASKOTARIKO BIKOTEAK



• **Antolatzailea:** Sexu Informazio Bulegoa

• **Laguntzaileak:** Gorabide eta Aspertxu



• **Data:** abenduak 10, **GAZTELANIAZ** osteguna

KAPITALAK SORTUTAKO BEHARRA: TURISTIFIKAZIOA

• **Data:** apirilak 29, osteguna **GAZTELANIAZ**

• **Hizlariak:** Anna Pacheco, Ana Geranios, AZET Etxebizitza Sindikatua

MARIENEAREN XV. URTEURRENA

• **Data:** maiatzak 13, osteguna **ELEBIDUNA**

Marienearen XV. urteurrena dela eta, denbora honetan zehar etxean bizi izan diren emakumeek euren bizipenak partekatu eta gogoratuko dituzte.



ANTZEZLANA

«PATAS ARRIBA»

- **Zuzendariak:** Gemma Almagro
e Izaskun Barbàrie
- **Data:** abenduak 17, osteguna
- **Lekua:** IBAIGANE Kultur Etxea
- **Ordua:** 19:30 **GAZTELANIAZ**

Patas Arriba hausnarketarako gune bihurtu da, geure buruaz eta partekatzen ditugun bizitzaren *istripuez* barre egiteko: feminismoa, aniztasuna, osasun emozionala, amatasuna... Gai sozialak ere astintzen ditu obrak, hala nola poliamodioa edo arrazismoa, besteak beste.

Lotsagabea eta barrez lehertzeko modukoa, bihotzari eta espiritu kritikoari tiraka aritzen da, bere bi pertsonaien arteko aliantzaren bidez: 50 urterekin terapia mota guztietatik pasatu den eta ezer ulertu gabe jarraitzen duen emakumea, eta genero ez-bitarreko pianista bertutetsua, hitz egin gabe ere dena esaten duena. Hankaz gora jarriko dugu dena!



ANITZERA, PLAZERREN LABORATEGIA



• **Formatzaileak:** Eneko G. Poza
eta Elena Cruces

• **Datak:** asteazkenetan,
urtarrilak 20,
otsailak 17,
martxoak 17
eta apirilak 14

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00 **ELEBIDUNA**

Dinamikak, galderak eta jolasak, desiraren
geografiak taldean arakatzeko. Gorputza
jakin-minez berraurkitzeko espazio zaindua.



ERAKUSKETAK ETA HORIEI LOTUTAKO JARDUERAK

Bisita librea, 09:30 - 14:30 eta
16:00 - 20:30, astelehenetik
ostiralera (ostiraletan, goizez
baino ez).

Marienea zabaldu zenetik,
artista askoren lanak egon dira
ikusgai Emakumeen Etxean:
ilustratzaileak, margolariak,
argazkilariak...

Emakumea bazara eta
emakumeari zein feminismoari
buruzko artelanak badituzu,
Marienea da zure erakusketa
antolatzeko lekua.

Jarri gurekin harremanetan,
eta erakutsi zure lanak!



ZAURITIK ERRESISTENTZIARA



• **Egilea:** Medicus Mundi

• **Data:** urriaren 1etik 31ra **GAZTELANIAZ**

**Aurkezpena: urriak 1, osteguna, arratsaldeko
18:00etan, Marienean**

Zauritik erresistentziara erakusketa sendatze- eta
sortze-prozesu kolektibo baten emaitza da. Urtebetez,
emakume, LGBTIAQ+ eta migratzaile talde bik
elkarrekin aztertu genituen jasandako indarkeriek
gure gorputzetan duten eragina. Erakusketa prozesu
horren adierazpen bat da: instalazioa, grabatua eta
ikus-entzunezkoak, indarkeria sinbolikoei, gorputzari,
identitateari, memoriari eta erresistentzia kolektiboari
buruz.



TRAVESÍA

GAZTELANIAZ

• **Egilea:** Carolina Zuluaga

• **Datak:** azaroaren 2tik
abenduaren 23ra

Aurkezpena eta bisita gidatua azaroaren 10ean, 18:00etan, Marienean.

Travesía tintaz eta kolorez ehundutako mapa emozionala da. Artistak emakume baten bizitza markatzen duten indarkeria ezberdinen ibilbidea egiten du: haurtzarotik hasita, indarkeria matxistatik igarota, behartutako erbesteratzeraino. Baina berreraikitze baten istorioa ere bada.

15 URTE GURE ESKUETAN

• **Egilea:** Marieneako Sormen
Topaketen taldea

• **Datak:** 2026ko abenduaren
1etik 2027ko urtarrilaren 31ra

15 urte, Marieneak lehen aldiz ateak ireki zituenetik!, Gezurra dirudi! Erakusketa honen bitartez, Sormen Topaketak taldeak 15 urte hauetako irudiak landuko ditu.

OINAZEA ZEHARKATU

ELEBIDUNA

• **Egilea:** Blanca Cadenas Cañón

• **Data:** otsaila eta martxoa

Aurkezpena: otsailaren 12an, 18:00ean, Marienean, Izan Inurriren emanaldi eta aurkezpenarekin batera.

Minbiziaren prozesuan egindako lan artistikoen erakusketa. Papera zulatu, urratu, testurak eta koloreak nahastu. Bakoitzak ahal duen bezala zeharkatzen du mina.

ROMANÍ HADIN II.

EMAKUME IJITOEK EUSKAL
HERRIKO HISTORIAN UTZITAKO
AZTARNEN ATZETIK

• **Egilea:** AMUGE. Euskadiko emakume
ijitoen elkarte



• **Data:** martxoaren 1etik 31ra **GAZTELANIAZ**

Aurkezpena: martxoaren 11n, 18:00etan, Marienean, «Empoderio» dokumentalarekin batera.

Erakusketa hau euskarazko eta gaztelaniazko zazpi panelek osatzen dute. Emakume ijitoek Euskal Herriko ondare kolektiboari egindako ekarpenak azaltzen dituzte.





NON DAUDE GETXOKO LGTBIQ+ NAGUSIAK?

EUSKARAZ

- **Egilea:** Inés Bermejo eta Julen Nafarrete
- **Data:** apirila eta maiatza

Aurkezpena: erakusketarena eta «Gu ere bagara!» liburuarena, apirilaren 21ean 18:00etan, Marienean.

Proiektu honek Getxoko LGTBIQ+ adineko pertsonen kontatu gabeko istorioak biltzen ditu, haien errealitatea eta bizipenak ezagutzeko. Isildutako errealitate horiek ikusarazten dituen erakusketan eta liburu batean gauzatzen da.



behin eta berriro

PLANTO EGIN ARTE! ¿CAMBIAMOS LA HISTORIA?

«Behin eta Berriro» indarkeria matxistaz sentsibilizatzeko eta prebenitzeko proiektua da.

Egokitutako instalazio baten bidez, eguneroko bizitzako uneak ikusteko eta indarkeria matxistaren alorreko egoera desberdinetatik igarotzeko hainbat eszenatoki bisitatzen lagunduko dizugu.

Ausartuko zara?

Indarkeria matxistari aurre egin nahi diozu?

Historia aldatuko dugu?

Herritarrentzako paseak, azaroan zehar:

- Azaroak 18, asteazkena: 18:00etan (euskaraz) eta 18:30ean (gaztelaniaz)
- Azaroak 23, astelehena, 11:00etan (euskaraz) eta 11:30ean (gaztelaniaz)
- Azaroak 24, asteartea: 18:00etan (euskaraz) eta 18:30ean (gaztelaniaz)
- Azaroak 26, osteguna: 18:00etan (euskaraz) eta 18:30ean (gaztelaniaz)

Beste data bat gordetzeko, jarri Marienearekin harremanetan.

IRAILA 2026

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

URRIA 2026

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

AZAROA 2026

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

ABENDUA 2026

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

URTARRILA 2027

			1	2	3
4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27
28	29	30	31		

OTSAILA 2027

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

MARTXOA 2027

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

APIRILA 2027


			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

MAIATZA 2027

				1	2
3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26
27	28	29	30		
31					

EKAINA 2027

1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30



GAINERA MARIENEA...

BERDINTASUN ARLOA

946 124 107

marienea@basauri.eus

EMAKUMEEN INFORMAZIO ZENTROA

946 124 101

cim-administracion@basauri.eus

SEXU INFORMAZIO BULEGOA

946 124 106 - 900 101 709

sexologia@basauri.eus

HEZKIDETZA PROIEKTUA 1ERA 2KAIN

946 124 103

baterabikain@basauri.eus

